

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

**ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ESPALOIETATIK SARTU, BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO ERRESERBA EGIN ETA EDOZEIN ERATAKO SALGAIEN ZAMALANAK EGITEGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

**1. artikulua: KONTZEPTUA.**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritakoagaz bat etorrira, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasea ezarri da, ibilgailuak espaloietatik sartu, bide publikoan aparkatzeko erreserba egin eta edozein eratako salgaien zamalanak egiteak dakarrena hain zuzen be.

**2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA**

Ibilgailuak espaloietatik pasatzeak, bide publikoan aparkatzeko erreserbak eta edozein eratako salgaien zamalanek dakarren herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu berezia da tasaren egitatea.

**3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOAK**

1- Orokorrean lizentziak edo emakidak jasotzen dabean eta aprobetxamenduen onuradunak diran pertsonak edota erakundeak dira subjektu pasiboak.

2- Ibilgailuetarako sarbideak eginik, espaloiak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik ezarritako tasan, ibilgailuen sarbide horreek daukiezan finka eta lokalen jabeak izango dira ordezeko subjektu pasiboak.

Horregaitik pasabide lizentzia eskatzean higiezinaren jabea nor dan be izen-abizen, NAN eta helbideagaz identifikatuta deklaratu beharko dau eskatzaileak, horrela egin ezean ez da bideratuko lizentzia eskaria.

**4. artikulua: SORTZAPENA.**

Ordenantza honetan araututako tasea ordaindu beharra kasu honeetan sortzen da:

a) Bide publikoko aprobetxamendu barriak emoten badira, lizentzia emoten danean.

b) Pasabide lizentzia bako espaloien edo oinezko gunetako aprobetxamendua dagoanean, aprobetxamendua egon dagoala egiaztatzen danean.

c) Lizentzia emon ezkerro edo egiaztatutako aprobetxamenduak jarraitu ezkerro, bajarik eskatzen ez dan arte, hurrengo urte natural bakotxaren lehengo egunean.

## 5. artikulua: TASA KUOTEA

1- Ordaindu beharreko tasa kuota okupatutako sarreraren zabalaren azalerari hurrengo ataleko tarifak aplikatuta ematen duen zenbatekoa izango da, bide publikoko aprobetxamendu erreserben tarifen kasuan izan ezik. Azkenengoko kasu honetan ordaindu beharreko tasa kuota hurrengo atalean zehazten dena izango da, azalera kontuan hartu gabe.

2- Ondoren ezarritako aprobetxamendu motaren arabera finkatuko da tasa kuota eta ezingo da murriztu ezarritako luzera eta denboran, ez bada alta eta baja kasuan.

	2020 (€)
<b>1.- Ibilgailuak espaloietatik sartzea, metro lineal bakotxeko edo zatika, urtean:</b>	
1.1.-Ibilgailua eraikinetan sartzea, ibilgailuak gordetzeko sarreraren aurreko bide publikoan ibilgailuak aparkatzeko debekuagaz, beti be lizentziak iraunkorrek badira:	
1.1.1.- Hiru ibilgailu edo gehiago hartzeko moduko lokalak edo 60m2 baino gehiago daukanak	54,97
1.1.2.- Jaubeen alkartekoek bakarrik erabilteko garajea	48,78
1.1.3.- Bi ibilgailu sartzen diranean edo lokalak 40 m2 eta 60 m2 bitarteko azalera daukanean	36,64
1.1.4.- Ibilgailu bat sartzeko lizentziadunak	18,32
1.2.- Ibilgailuak eraikinetan sartzea lokalak 60 m2 baino gitxiago daukanean eta bat edo bi ibilgailu bakarrik gordeteko kapazitatea daukanean	27,42
1.3.- Ibilgailua eraikinetan sartzea, ibilgailuak gordetzeko sarreraren aurreko bide publikoan ibilgailuak aparkatzeko debekuagaz, beti be lizentziak aldi baterakoak badira	54,97
1.4.- Edozein dala jabea ibilgailua eraikinetan sartzea, ibilgailuak gordetzeko sarreraren aurreko bide publikoan ibilgailuak aparkatzeko debeku barik, lokalak hiru ibilgailu edo gehiago hartzeko modukoa danean edo 60m2 baino gehiago daukanean	44,06
<b>2.- Bide publikoko aprobetxamendu erreserba bakotxeko, urtean:</b>	
2.1.- Bide publikoa taxi geltokirako erreserbatzea	111,33
2.2.- Bide publikoa autobus geltokirako erreserba bakotxa	396,17
2.3.- Bide publikoa aparkaleku eskusiborako erreserbatzea	53,66

## 6. artikulua. KITAPENA

1- Lizentzia edo baimena emotean eskari datari jagokon hiruhileko naturala kontutan izanda, hori barne, urteko kuota lainduta kitapen zuzena egingo da.

2- Hurrengo urteetarako, baja eskatzen ez dan arte, erroldan sartuta errezibozko kitapenak egingo dira.

3- Baja eskariaren aurrean, eskari datari jagokon hiruhileko naturala kontutan izanda, hori barne, urteko kuota lainduko da. Errolda kaleratuta egon ezker, jagokon itzulketa egingo jako subjektu pasiboari.

4- Lizentzia edota baimen egoki barik egindako aprobetxamenduaren aurrean, zuzeneko kitapena egingo da ikuskapen edo salaketearen espedientean jasotako datuen arabera, kuota laintzeko ikuskapen edo salaketearen data kontutan izanda. Eta, hurrengo urterako erroldan sartuko da.